

## Martin Ugalderekin solasean. "Militarrek bultzata ari dira sozialistak"

Iñaki Zubiondo

*Argia*, 979. zk., 1983-06-19: 4-8.

"Hablando con los vascos" famatu haren bidez ezagutu genuen makinatxo batek gaur egun 61 urtetan dabilen Martin Ugalde hau. Liburu mordo bat badu idatzirik baita kazetari lan zabal bat ere eginik. Hainbeste urte euskal politikagintzaren (herrigintzaren) barruan dabilen gizon honek irekitasun fama duen abertzale honek PNV barnan instituzio bat den honek. Konfiantza emanaz hartu gaitu (hasi berria patriarkaren aurrean?) Hondarribiako bere etxean. Leihoaz beste aldetik Txingudiko badela eta baporeak kulunkan postal bat iduri.

*ARGIA.*– *Hola segitzatu egin beharko litzateela eta esan ditu oraintsu Etxenikek. Zer derizkiozu, aldatu behar litzatekeela, dagoen-dagoenean aski dugula...?*

MARTIN UGALDE.– Orain dela egun batzuk, "Deia"ko nere kolumnan egin dut hortaz komentario bat. Etxenikek esan duenez, berez hitz egin du. Hori ñabardura polita da, baina nik uste dut ez duela berez esan. Ofizialki ezin zuen esan, baina ofizialki esana bezala izan da. Eta abertzale sentitzen garen guztiok horretan gaudela uste dut: Espainiako gobernuari joko hau bukatu dela esateko badela garaia, orain artekoak gustora hartu ditugula eta zain egon garela, hitza beteko duten zain; bainan hitza betetzeari uzten dioten momentuan, guk ere erantzun bat eman behar diogula horien jestoari.

Zer ari dira egiten? Lehen UCDe emandako trasferentziak, Estatutoaren indarrak horiek dira, sozialistek ere agindu zuten emango zituztela, ozenki, hemen Donostian bertan Felipek. Eta horiek eman beharrean lehenago zain zeudenak aparkatu eta iturria itxi egin digute, baina erabat. Zer esan nahi du horrek? Gizon horiek ez daudela guk aukeratutako Estatutoa desarroilatzeke. Hori hola bada, eta esplikaziorik ematen ez badigute, bada indarra noski, eta ez dakit horrek zein ekintza politiko mereziko lukeen, baina zerbait egin behar dela dudarik ez. Lehenik garraisi egin, Etxenike gazteak egin duena. Eta gero neurri bat hartu beharko da. Guk botatu genuen estatutoa ez da hau, aldatu egin digute; eta zerbait pentsatzen hasi beharko da.

*A.*– *Aldatu egin digutela. Zergatik diozu guk botatu genuen estatutoa hau ez dela?*

*M.U.*– *Laburtu egin digutelako, eta Estatutoak eskatzen dituen trasferentziak moztu egin dizkigutelako. Joko honetan ezin dugu jarraitu.*

*A.*– *Baina Estatuto hau, dagoen modura, orain hiru urte formulatu zen moduan, hiru urtetako prozesu honen ondoren nola ikusten duzu? Alegia, ea Estatuto hau dagoen*

*bezala planteatuko zenukeen, trasferentziaz beteta, ala prozesu hau eman denean beste gauza bat eskatu beharko genukeela konturatzen gara?*

M.U.– Hara, ni nahiko instituzioz, eta adinez ere, gero eta gehiago legearen aldeko, transformazio politiko neurtu baten alde nago. Ez dakit, besterik sufritu dugulako edo... Orain arte emandakoa, Estatuto hau, beteko balitz, gure Herriak behar duela uste dut, eta behar dugula. Eta hori betetzeko egin behar den guztia egin behar genuke. Gutxienez oraingo erritmoan jarraitu beharra daukagu, gure herriak hizkuntza piska bat berreskuratuko badu, gure instituzioak piska bat indartzen hasiko badira. Herria piska bat bere herri kontzientziaz betetzen hasteko, ... Horri begira, Estatuto honek ematen digu nahiko joko. Ez horretan geratzeko, noski. Bainan politika hori da, gauzak pausoka lortu behar dira. Bestea iraultza izango litzateke, eta ni ez naiz iraultzailea.

*A.– Honetaz duzun jarrera pittin bat argiagotuko al diguzu?*

M.U.– Gaztetandik ere nahiko aurrelari izan naiz, baina ez rebolezionario, iraultzetan gauza asko galtzen bait dira. Eta gure herria, dagoen bezala, ez dago ezer galtzeko. Herri bezala mixeria haundian gaude. Hizkuntzatik hasita, instituzioak, herri kontzientzia, ... Ez dakit gure herriak benetako herri kontzientziarik duen. Ba dira taldeak gehiago dutenak, baina gure Herria osoki hartuta, herri kontzientzia egiteko dago oraindik. Ez da harritzekoa. Zenbat urte egon garen... ezer idazteko biderik gabe, instituziorik gabe, ezer gabe. Milagroa izango litzateke pasatako guztiak pasata gero berebiziko herri kontzientzia bat egotea. Egitazko kontzientzia taldeetan dago, eta taldeetan ere, alderdietan ere, nahiko kontzientzia lasaia askotan.

Orduan, behar dugu denbora bat gure instituzioak sendotzeko, euskara zulo horretatik atera, komunikabideetan sartu, orain arte hasi bakarrik egon bait gara. Nahiko pauso haundia eman dela uste dut, nahiz eta batzuek txikia dela uste, eta aurrera jarraitzeko gogoia badagoela, gazteetan behintzat. Ni gazteek kezkatzen naute gehien, eta ikusten ditut gazteak lanean, euskararen alorrean batez ere. Ez dakit... hartuko nuke orain arteko Estatuto hau, beteko balitz, denbora baterako noski. Gero gehiagora joateko.

*A.– Orain ordea erreformatu beharraz hitz egiten hasi da. Nondik iruditzen zaizu joango direla tiroak, "Defendi dezagun Estatuto hau" ala "Alda dezagun Estatuto hau", nondik?*

M.U.– Nik entzun dudanez, eta nere burura etortzen zaidanez, planteamendua aldatu egin behar dugula uste dut. "Hau ez da guk eskatutako Estatutoa", esan, daukaguna birplanteatu, eta berri bat eskatu beharko dugu, beste planteamentu berri bat eginda. Behar bada aurrerago joanaz, eskakizun berriak eginaz, orain arte sozialistek eman diguten aurpegiari beste aurpegi gogor bat jarriaz. Herria mentalizatu egin behar da, eta agian hurrengo hauteskunde kanpainarako planteamendu berri baten kontzientzia hartzen hasi beharko dugu.

*A.– Hain epe laburrena hasiko dela ikusten al duzu erreforma hori?*

M.U.– Horretarako laister hasi behar dela uste dut, garaia garaian erantzuteko.

Nik oraindik badut itxaropen bat. Batetik, sozialistak ari diren jokoan beren kasa ez direla ari ikusten dut, militarrek jarri zizkieten mugak, eta sozialistak aurrera aterako badira gauza batzuetan amore eman beharko dute. Eta hemen dago gaiztakeria: gure kontura ari dira amore ematen, ez beren programatik, guretik baino. Hau da abertzaleok ametitu ezin duguna. Sozialistak behar bada tanteatzen ari dira, ea noraino agoantatzen dugun isilik. Euskal Herria arerio txarra dela badakite; badute nahiko arazo Espainian sozialistek, eta gurekin gaizki jartzeak kalte haundiak ekarriko dizkio. Ez bakarrik gure herriak emango dion erantzunaz, gero... ETA ari da esaten "ZEN" plan hori aurrera ateratzen badute gogorrago ersoko dutela. Egia esan, herri osoa hasiko da ekintza gogorrago batean, batzuek harma batzuekin eta besteak besteekin. Ni demokrata naiz, eta demokrazia bidez badaude moduak aurpegi gogorragoa emateko. Eta hauteskunde prestaketa hasia denez, programa horretarako prestaketak egiten hasi beharko da, Alderdi barruan ere bai.

*A.– Sorpresan, ustegabeen, harrapatu al zaitu sozialisten jarrera honek?*

M.U.– Egia esan bai. Lehen ere izan ditugu sozialistak aurka, gerra aurretik ere sozialistekin zen borrokarik haundiena. Gerra hasita ere, badakizu zenbat isitulurekin lortu genuen lortu genuena. Baina gero, berrogei urtean, atzerrian, nahiko elkarrekin egin ditugu. Nik uste nuen sozialistek bazekitela gu nortzuk ginen eta gure gauzak onartu behar zituztela. Eta ez dituzte onartu. Ikusten denez, Espainian egin duten olatu berarekin nahi zuten gure Herria bete urez eta estali; eta ikusi dute ez dutela gure herria leporaino bete, ez direla potrotaraino ere iristen. Horrekin gaiztotuta daude; eta gero atzetik ejertzittoa daukate. Ejertzittoaak neurriak jarri nahi ditu, lehen ere jarri zituen bezala. Otsailaren 23ko arazo hori ere ez zen hain gauza txikia izango, agertu zuten bezain txikia. Horiek bost urtetik bost urtera ematen dute kolpea, eta bost urte pasa direnez geroz, bestea eman behar dutela iruditzen zaie. Savaterrek zioen bezala, horiek ez dute ikusten berek beren aberria maite duten bezala besteek berena maita dezaketenik.

Eta horretan ekibokatu egin dira, eta hor aurkituko gaituzte, ez gara makurtuko. Abertzalea denak, Alderdikoa nahiz Euskadiko Ezkerrakoa nahiz Herri Batasunakoa, horri aurpegi emango dio. Istilu gogorrak izango dira hemen, eta benetan arrazoibide batera makurtzen ez badira gauzak itsusitu egingo dira.

*A.– Duela hiru urte Estatutoaren aukera bidegurutze bat izan zen abertzaleen artean, eta bi bide hartu ziren nagusiki, aldekoak eta kontrakoak. Badirudi orain bide horiek birplanteatu egiten direla.*

M.U.– Horien jarrerara gurea hurbildu egiten da, noski.

*A.– Estatutearen kontra atera zirengana alegia.*

M.U.– Noski, haiek esaten ziguten "ez duzue politika bidez ezer lortuko" eta hau zen argumenturik haundiena; "horiek espainolak dira eta..." Monzonek berak esan ohi zidan: "Zuek uste duzue politika bidez horiekin zerbait lortuko duzuela, eta ez duzue ezer lortuko". Guk demokrata bezala zera pentsatzen genuen, demokrazia formal batean gauza formalak behintzat egingo zirela; eta gauza informalak egiten hasi direla ikusi dugu, baita atzetik ere ematen hasi direla. Nori ematen diote arrazoia? Indarkerian ari direnei. Indarkeria baten kontra sortu zen bestea, eta horiei, demokrazian sinesten ez duten horiei ari zaizkie arrazoia ematen. Ni bezala beste asko ere konturatzen da horiek egiten ari direna ETA sendotzea dela. Alderdiko gazteek, politika bidean tokirik eta lanbiderik aurkitzen ez badute, normala da gogorrera joko dutela. Horregatik, guk nahi gabe gure posturak hurbildu egin dira, Espainiaren inkomprensioaren aurrean.

*A.– Espainiatik agertzen den jarreraren aurrez aurre ETA aipatzen duzu. Nola juzgatu beren ekintza?*

M.U.– ETA egiten ari den jokoa ere ez dakit ez ote den horretan ari, gure politika bideek Espainiarekin frakasa dezaten. Erresponsabilitateak bietan egon daitezke. ETAk aspaldi honetan ez zuen beharbada hain gogor jokatu behar. Bakearen aldeko mahai hori. Ni Garaikoetxearekin ados nengoen. HB une onean ikusten nuen, alegia arrazoizko bide baten bila ikusten nituen. HB hortan egonik, ETA ere nolabait, beste zerbaiten truke behar bada... gauzak piska bat baretuko zirela. Herri honetako egoera ekonomikoa oso larria bait da. ETAk hala ere aurrera jarraitu du bere gogorkerian; eta ez du nahi izan mahai hori aurrera jarraitzerik. ETA eta sozialistak dira beraz bake hau zerbaitetan ez mamitzearen erresponsabilitate gehiena izan dutenak.

Taktikak hor daude. ETArekin beharbada hemen iraultza oso bat etortzea izan daiteke. Baina hemen ez dago iraultza batetarako lekurik, ez laguntzarik, ez textuingururik, geografia aldetik begiratuta ere ez dut ikusten holakorik egiteko kemenik izan genezakeenik. Eta beste horiek berriz ikusten dituzu, "ZEN", plan hori Frangarena baino gogorragoa dator. Horiek ETArekin posizioetara baltzako dituzte gure gazteak.

*A.– Nor dabil orduan horren bila, nor dago atzetik?*

M.U.– Militarrak dabilta horren bila, ea azkenean jendea aspertzen den eta etortzen den ez gerra total bat baina bai halako eraso gogor bat. Buru gutxiko jendea bait da, eta uste dute hemen bukatu egingo dela abertzaletasuna, bukatu egingo dela kemena. Eta egingo dutena zera da: abertzaletasuna gogortzea, gure erresistentzia gogortzea... ETARI komeni zaiona. ETARI fronte nazional bat komeni zaio, bainan fronte nazional harmatu bat.

*A.– Gauza bat datorkit burura zure hitzok entzutean. ETakoek zuk diozuna irakurtzen dutenean, irakurtzen badute behintzat, arrazoia zeukatela pentsatuko dute. Alegia, ez zela negoziatu behar aginte politiko manipulatuekin, marionetak maizten zituen*

*atzeko nagusiarekin baizik. Eta militarren esku baldin bazegoen, Estatutoa espejismo bat zela. Arrazoia al daukate bada orain?*

M.U.– Aizu, bada... alde batetik zuk esaten duzun bezala bai. Baina esango dizut beste aldetik. Mundu honetan sinplifikatzea erreza da eta gauzak egitea zaila. prozesu politikoa hasi baino lehen planteamentu hori egitea eta horrekin asmatzea askoz ere errezagoa zen gurea baino. Gu baikorragoak izan gara, eta ahal zena egin nahi genuen, ez nahi genuena. Bai bait genekien nahi genuena egiteko biderik ez zela. Militarrek ezagutzen bait ditugu, horiekin borrokan ibili bait gara. Ez horregatik bakarrik hemengo geopolitikarengatik ere bai. Ze laguntza espero genezake holako gerra batean? Ikusi genuen gure gerran zer gertatu zen. Denek, denek, atzea eman ziguten. Hara hor Frantzian, sozialistak ziren nagusi. Zergatik egin zuen atzera Leon Bloum zenak? Gero jakin dut, orain dela gutxi, Lezo Urreizietak esanda: militarrek esan ziotela... ez dira asko sartzen politikan Frantzian, baina ikusirik alemanak eta italianoak ere sartu zirela, esan omen zioten "hori egiten baduzu, guk golpea emango dugu" Inglesek ere berdin egin zuten, ikusirik indarrik ez zutela Alemaniaren aurka. Orduko esperientzia izugarria izan zen; ba al dakizu hemengo gartzelak eta hemengo goseak eta hemengo miseriak-eta zenbat iraun zuten? Eta orain ere militarrek holako gobernu baten zain daude, atzean jartzeko. Alde horretatik kontu Fragarekin.

Ikusten duzu ze aukera dauzkagun. Eta haiek hori esatea erreza zen. Guretzat izan zen lan zailagoa: "hau zaila duk baina egin behar diagu ahalegin bat". Bestela ez daukagu ezer egiterik. ETak ze etorkizun dauka gaur egun? Bai, ikusten duzu, gogor jokatu eta hilketak eta... baina nora goaz, ze programa dugu?

*A.– Hori, dena dela, denei pasatzen zaien gauza dirudi. Ezen, bide politiko batetik sartu eta agertzen baduzu programa bat eta gero ikusten duzu ezin dela aurrera atera...*

M.U.– Baina hortaz orain konturatu gara. Sozialistak etorri arte, UCD-rekin, eta Suarezekin... Suarez nor den badakizu nik bezala, baina Suarezekin hasi ginen bizitzen, eta hasi ginen gauzak egiten. Ez dugu inoiz Euskal Herrian izan gaur bezalako askatasunik eta elkarren arteko loturarik eta instituziorik. Ez dugu izan historia osoan! Horrek jarraitu izan balu guk pentsa bezala, etorkizuna ez zen txarra. Sozialistekin hobeto joango zela uste genuen. Orain atzera egiten hasi dira, militarrek bultzata; eta guk erantzun bat emango diegula uste dut, ez dakit nola, baina emango diegu; demokrazia bidez, ahal den neurrian.

*A.– Ezagutzea tokatu zaizun guzti horren ondoren, nola ikusten duzu Europako sistema? Alde batetik geopolitikagatik hemen beste gauza bat ezin dugula egin diozu, baina baita ere burutik beherakoa etortzen bazaigu ezin dugula laguntzarik espero. Alegia, 36-ko gerran Espainiako gobernu lejitimoa defenditzen genuen euskaldunok, orain ETak egiten duenaren alderantzizkoa teoriarik, eta hala ere inhibititu egin zen Europa. Zer espero genezake beragandik?*

M.U.– Egia esan ez dut Europagandik gehiegi espero. Beren eskematik irteten bagara batez ere. Frantzia ikusten duzu ze neurri ari den hartzen herbesteratuta dauden gazteen gain. Gauza horiek itsusitzen eta gortzen joango dira. Ez bait dago Euskal Herria bakarrik, hor dago Korsika ere, eta Britainia. Baina azkenean ba al dakizu zerk irabazten duen? Ez arrazoiak, indarrak baizik, eta indarra gaur ere, lehen bezala, gure kontra dago. Hala ere, ez dugu borrokatzea utzi behar, ahal den neurrian. Demokrazi bidez lan egiteko momentua zela uste nuen, eta lorpenak izan dira. Zuk badakizu izan direla, ez dakit zenbatekoak baina hainbeste inoiz ez dugula lortu uste dut, historia osoan. Ezta Nafarroako erresuman geundenean ere. Hizkuntza nola zegoen badakizu, eta instituzioak, bakoitza bere aldetik ibiltzen zen. Herriaren kontzientzia ere haundiagoa da. Bide hau ez da ona askatasuna hamar urtetan lortuko dugulako, baina bai askatasun bidean urrats batzuk emango ditugulako. Orain gauzak geldirik daudela dirudi bi-hiru urtetako pausoak; atzera egin nahi dute, LOAPA eta trasteekin. Baina ez da hau hola geldituko eta politika alorrean oraindik ere lan egiteko bidea izango dugu.

Zergatik pentsatzen dudan hori? Itxaropen piska bat behar delako, eta beste soluziorik aurkitzen ez dudalako.

*A.– ETA aipatzen dugu behin eta berriro. Mintza gaitzen ezker abertzaleaz. Ez da oso zaharra Euskal Herrian, baina bere bidea egin du. Bere jaiotza ezagutu, nola segitu duen eta nola dabilen ere badakizu. Nolako balorazioa egiten duzu ezker abertzaleaz?*

M.U.– Ezkerra ez dago elkartuta. Eta inork badu elkartzeko beharra ezkerra da. Alderdiak badu bere jendea bere oinarri zabala, ezkerrari falta zaiona. Askotan entzun diet beste aldean esaten Alderdiaren neurrira heltzean, ezkerreko guztiak elkartzean holako zebait gertatuko litzateke, orduan etorriko litzatekeela Alderdiarekin buruz buru hitz egiteko aukera. Nik ere uste nuen bide batetik hartuko zutela. Bainan ikusten duzu, ezkerra ere pertsonalismoz betea dago, zatitua.

Herri Batasuna ez da partidu bat. Jende asko dago, abertzaleak gehienak, baina batetik bestera badago aldea, batzuk ezkerreko beste batzuk eskuinago, denak ezkertiarak izan arren badaude mailak. Gero Euskadiko Ezkerrak egin duena ikusten duzu. Espainolismorako bidea hartu dute, lehenengo Partidu Komunistarekin elkartuaz: ez komunistak direlako, baizik komunistak espainolak direlako. Gero bazen EEn beste hego bat, gehiago interesatzen zaidana, nik sinisten dut jende horrekin: Iñaki Mujika Arregi esate baterako, abertzaleak dira. Zer egin dute? Irten egin dute. Oraindik hala ere EEn badira abertzaleak. Nola jarriko dut, bada, dudatan esaten baterako Lizundiaren abertzaletasuna? Orain, beste askorena bai. Ze jende, nora doaz...?

Gaizki ikusten dut ezkerra. Ezkerrak erakutsiko baligu fronte abertzale ezker bat egiteko gauza dela, behar bada moderatuagoak garenok ere...

*A.– Joan den udazkenean elkarrizketa batean Peixotok zera esaten zigun, gazte denboran hutsik aurkitu zirela. Eta ezker abertzaleak eman duen emaitza hortik ere ikusi beharko litzateke. Haien hasi zirenean jendeak "Euskadi" hitza bera ere ez zuela ezagutzen zioen Peixotek.*

M.U.– Hori egia da. Zergaitik uste duzu hasi nintzela "Hablando con los vascos" eta holako liburuak eginez? Jendeak idearik ere ez zeukala konturatzen nintzelako. Alde horretatik asko igo da, eta gazteen artean ere ezkerreko kontzientzia asko hazi da. Baina arazo bat ikusten dut. Eta Alderdian batzar bat zergatik ez genuen egiten esaten zidan askotan Argalak. "Porque no queremos caer en un etismo" esaten nion nik. ETA biltzen den bakoitzean zatiketa zetorrela esaten nion. Eten eta eten eta eten izan da horko traiektoria. Laugarrena, bosgarrena, seigarrena, zazpigarrena, zortzigarrena... Ez dut uste ezkerrek kontzientzia erresponsible eta batez ere homogeen bat erakutsi duenik. Ez politiko aldetik eta ezta sindikatu mailan ere; hor dago ELA eta bere aurrean ez dira gauza izan gauza gehiago egiteko.

*A.– Honez gero Alderdia ere ikutu beharko genuke. Nola ikusten duzu?*

M.U.– Garai batean Alderdia gure Herriaren kontzientzia zen, partidu bat baino gehiago mugimendu abertzale bat zen, gerra arte behintzat, eta gerran ere bai. Zein zebilen batailoietan eta? Partidukoak ere ez, baina Alderdi ingurukoak zirenak; euskaldun jendea, abertzalea, herrian lan egiten zuena hor zen. Gero, berrogei urtetako desertu horretan, Alderdia zen egituratua zegoen bakarra; batzutan galdua ere bai, baina beti, Gadiana bezala, irtetan da. Beti hor egon da, bere bulegoarekin, bere gizonekin. Piska bat zahartuta egotea zen gure arazoa; gogoratzen naiz gazte bila genbiltzala 69tik 75a arte. Idazkaritza berritzen aritu ginen eta orduan sartu ziren Arzalluz, ni ere bai... Nafarroan ez genuen jenderik aurkitzen, Araban ere oso gutxi, Bizkaian eta Gipuzkoan gehien. Organizazio aldetik Bizkaia izan da beti gehien; kultura aldetik ez, kultura aldetik beti Gipuzkoa izan da nagusi.

Gobernua ere Alderdiak mantentzen zuen, sozialistak ere hor ziren arren. Franco hil zenean Alderdia momentu txar batean zegoen; baina bazeuden buruak, eta tradizio bat dagoenean eta buruak ezagutzen direnean, buru horiek biltzen dute jendea berehala. Holako martxa bat emateko ez zegoen beste talderik. Behar bada bitalidade berria osorik hartu gabe oraindik, baina Alderdia zutik dago, bere tokia dauka, eta lehenengo indarra da. Agian nahiago nuke gazteria gehixeago balego.

*A.– Orain dela urte gutxi EAJk zeukan egitura kaxkarra aipatu duzunean izen bat bota duzu: Araba. Eta Araba da hain zuzen orain indarririk gehiena agertu duen lekua, botorik gehiena bildu duenekoa, garbiena dominatzen duenekoa. Ze koste politiko dakarkio horrek abertzale bati?*

M.U.– Alderdia boti alderdi nahiko posibilista izan da. Erdiko euskaldun horrek ematen dion aurpegia izan du. Kasu horietan, eta Araban, baliatu da ez partiduko jende kontzientzia zuen batzuekin baizik eta independente zen jende... ordeneko jendearekin. Suerte haundia izan dugu eta gizon interesgarriak lortu ditugu. Araban badute izena eta errespetoa; eta Olloraz, Cuerdaz eta Gebaraz ari naiz.

Koste politikoa? Esango dizut. Arabarrak arabar dira. Bizkaitarrak ere bai nahiko bizkaitar. Gipuzkoarrak ere bai gipuzkoar baina gutxiago; Aberriaren kontzeptu osoago bat dugula iruditzen zait. Ikusi duzu Lurralde Historikoetako Legearekin zer gertatu

den: oraindik ere indar haundia dago bakoitzak berea ez uzteko Euskadi izaten jarraitzerakoan. Kantonalismo esaten diote batzuek, tradizionalismo esango nuke nik. Gebara izan da gehien bururatu dena, nazio raso bat izan beharrean diputazioek indarra mantendu dezaten. Hori ona da, batez ere posibilismotik begiratuta; izan ere egunen batean Nafarroa etortzen bada, etorriko al da!, Nafarroa bezala etorriko da. Hemendik hamar urtetara, politikak asko irabaziko du, eta bide horretan goaz, Euskadi bat egitera, hainbesteko bereiztasun gabe. Nik politika oso luzera begiratzen dut. Eta instituzio horiek, diputazioak, oso sartuak daude gure herrian.

*A.- Alderdia ahul zen lekuetan "ordeneko jendeaz", baliatu dela diozu. Ez al da hori koste politikoa? Alegia, geopolitikan edo gauzak oso goitik begiraturuz alderdi bat autonomista edo nazionalista dela indar euskaldun bat indar espainol baten kontra. Baina gero herri bakoitzeko politika zehatzean jauntxokerian, notabilismoan erortzen dela, herriko notableen alderdia.*

M.U.- Badakizu, politikan jokatzeko bideak, zoritxarrez, ez hemen bakarrik, baita mundu guztian ere, honela joaten dira. Bat ahal duen tokitik joaten da zabaltzen, eta gure interesa abertzaletasuna zabaltzea da. Hor sartu diren gizon independente horiek konprometitzea, kurpil horrek indarra har dezan. Ez dut uste horrek ahultzen gaituenik. Zer nahi du alderdi demokratiko batek? Herriari lagunduko dion eta herritasunera eramango gaituen indar bat, gizon batzuk, bildu beharra dago. Behar hori baduzu, dagoen jendea bilduko duzu. Badakizu Araban ez dagoela halako konzientziarik, ez da sekula izan; eta ezin duzu hori inprobisatu. Sartzen joan behar dugu, konfiantza hartuaz, ikus dezatela zer nahi dugun, ez dela beren kaltetan, elkarrekin egoteak egingo digula. Lan horrek pazientzia eskatzen du. Behar bada gazteago den bati hori abertzaletasuna lasatzea dela irudituko zaio. Baina nik uste dut abertzaletasuna ez dela jetxiko; abertzale ez dena joango da igotzen.